

2022
VIII.EDIZIOA



ARAUDIA

EH MENDI ERRONKA 67km

2022-VI-4 (VIII.EDIZIOA)



Euskal Herria Mendi Erronka (EHME) distantzia luzeko mendi-lasterketa bat da, Ultra Trail bat.

EHME, mendi lasterketa soilaz gain, bere oinarrian beste helburu batzuk ere txertatuta dituen kirol ekimena da, Euskal Selekzioen ofizialtasuna, Mendialdea-Aralar eskualdearen garapena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaldea), ingurumenaren babesean eragitea edo euskararen sustapena, besteak beste. Hori guztia aurrera eraman ahal izateko Auzolana beharbeharrezkoa dela sinesten dugu eta horretan oinarritzen dugu gure eguneroko lana.

1. ANTOLAKUNTZA:

Euskal Herria Mendi Erronkaren antolatzailea Euskal Herria Mendi Erronka Kirol Elkarte da (Kirol Elkartearen Erregistroko G71234975 zenbakia).

2. EGUNA ETA LEKUA:

Lasterketa 2022ko ekainaren 4an egingen da. Goizeko 8:00etan hasiko da, Leitzako plazatik. Lasterkariak antolakuntzak emandako argibideak jarraitu beharko dituzte. Lasterketa honetan parte hartzeak araudi hau eta antolakuntzak www.ehmendierronka.eus helbidean argitaratutako informazioa onartzea dakar berarekin.

3. IBILBIDEA:

Lasterketa honek 67 km eta 7.200 metroko gainbehera du, eta Leitzan hasi eta bukatzen da, Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberritik pasatu ondoren. Honatx zehatzago:

- Leitza
- Guratz
- Gorriti
- Arribe
- Gaintza
- Irumugarrieta
- Albi
- Artxueta
- Iribasko Iturburua
- Alli
- Lekunberri
- Iontza
- Ireber
- Kornieta
- Leitza

Neurketak ez daude homologatuta.



4. PARTE-HARTZEA:

Araudi honek dioena betez gero, proba egunean 18 urtetik gorako kirolari orok parte hartu ahal izango du, federatua izan edo ez. Antolakuntzak proba egin aurretik azterketa mediku bat egitea gomendatzen die parte-hartzaile guztiei, eta, halaber, parte-hartzaile guztiek kirol-jarduerak dakarren arriskua onartuko dute.

5. EZINBESTEKO MATERIALA:

- Haize-babesgarria.
- Bisera edo buffa.
- Eguraldi txarra eginez gero:
 - Euritarako eta izerditarako den kapeladun jaka, mendian eguraldi hotza jasateko balio duena.
 - Galtza edo lasterrerako malla luzeak (belaunaren azpitik). Galtza motz eta galtzerdi luzeen konbinazioa ere onartuko da anka guzia estaltzen badu.
 - Bigarren kapa termikoa.
 - Eskularruak.
 - Manta termikoa (gutxienez 1,2m X 1,2m)
- Derrigorrezkoa izango da ezinbesteko material guztia korralitoan sartzerakoan aurkeztea eta lasterketa guziaren zehar soinean eramatea. Materialaren kontrola lasterkari guztiei ibilbideko edozein puntutan egin ahal izango zaie, irteera eta helmuga puntuak barne. Derrigorrezko material guztia ez badarama, berehala lasterketatik kanporatua izango da.
- Derrigorrezko materiala aurkezten ez duenak, ezingo du proban parte hartu.
- Lasterketa derrigorrezko materialarekin amaitzen ez duenak, lasterketaz kanpo geratuko da.

6. KATEGORIAK:

(Proba egiten den egunean lasterkariak duten adina)

- GIZONEZKOAK
 - Seniorrak: 18 urtetik gorakoak
 - Beteranoak: 45 urtetik gorakoak.
- EMAKUMEZKOAK
 - Seniorrak: 18 urtetik gorakoak.
 - Beteranoak: 40 urtetik gorakoak.



7. TXAPELKETA

- **BANAKAKO EHME TXAPELKETA**
 - Parte-hartzaile guztientzat da.
 - Gizonezkoak zein emakumezkoak.
 - Kategoria absolutua eta beteranoa.

- **KM BERTIKALA EHME TXAPELKETA**
 - Parte-hartzaile guztientzat da.
 - Gizonezkoak zein emakumezkoak.
 - Kategoria absolutua.
 - Gaintza – Irumugarrieta zatian izango da
 - EHME probako ibilbide osoa bukatu beharko da, eta gehienezko denbora 12 ordukoa izanen da.

- **KLUB MAILAKO EHME TXAPELKETA**
 - Mendian federatutako klubaren arteko txapelketa da, eta, hortaz, aurtengo mendizale federazioko lizentzia dutenentzat.
 - Klubek, gutxienez, lau kide izan beharko dituzte, eta horien artean neska bat gutxienez, nahitaez.
 - Klubaren arteko sailkapenerako, Klub bakoitzeko lau denbora onenak hartuko dira, beti ere neskarena barruan dela. Lau denbora onenen batzuek bestekoa egingo da, eta denbora gutxienean egin duena izango da irabazlea.
 - Puntuatzeko helmugan sartzeko gehienezko denbora 12 ordukoa izango da.

- **BERTAKO EHME TXAPELKETA**
 - Leitza, Areso, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberrin erroldatutako kirolarientzat izanen da soil-soilik.
 - Gizonezkoak zein emakumezkoak.
 - Kategoria absolutua.

8. SARIAK:

Sariak ezingo dira metatu

BANAKAKO EHME TXAPELKETA

Kategoria absolutua, gizonezkoak eta emakumezkoak:

1. Txapela, garaikurra, 600 € eskudirutan eta bertako produktuekin osatutako saskia.
2. Garaikurra eta 400 € eskudirutan.
3. Garaikurra eta 200 € eskudirutan

Kategoria beteranoa, gizonezkoak eta emakumezkoak:

1. Garaikurra eta bertako produktuekin osatutako saskia.
2. Garaikurra.
3. Garaikurra.



KM BERTIKALA EHME TXAPELKETA

Kategoria absolutua, gizonetzkoak eta emakumezkoak:

1. Garaikurra, Lopenea Landa Ostatuan bi pertsonentzako gau bateko egonaldia (loa eta gosaria. Erabiltzeko epea: 3 hilabete) eta bertako produktuekin osatutako saskia.
2. Garaikurra.
3. Garaikurra.

KLUB MAILAKO EHME TXAPELKETA

1. Txapela, garaikurra eta Aralar Kanpineko bungalowetan 12 pertsonentzako asteburua pentsio erdian. Erabiltzeko epea: 2022.urtean gozatu behar da.
2. Garaikurra.
3. Garaikurra.

BERTAKO EHME TXAPELKETA

Kategoria absolutua, gizonetzkoak eta emakumezkoak:

1. Garaikurra, Leitza Kirolak dendak emandako oparia (150 €-tan baloratua) eta bi pertsonentzako bazkaria Musunzar Jatetxean.

Ezinbestekoa izango da antolakuntzak aurreikusitako orduan lasterketako podiuma osatzen duten korrikalariak sari-banaketan egotea. Horrela ez bada, antolakuntzaren baimenarekin izan ezean, korrikalaria saririk gabe geldituko da.

9. IZEN-EMATEA:

Gehienez 700 parte-hartzaile izango dira, eta izen-ematearen ordena zorrotz jarraituko da. Izen-emateak internet bidez egingo dira lasterketaren web ofizialean <https://www.ehmendierronka.eus>, kreditu txartelaren bidez, 2022ko otsailaren 1ean 10:00etatik aurrera. Izen-ematea egin eta 72 ordura ordainketa egin ez bada, ezeztatutzat emango da izen-emate hori.

- Prezioak:

Izen-emate data	Prezioa	
	Federatuak (betiere mendi-lasterketak barne hartzen duen modalitateren batean)	Gainontzekoak
2022/02/01 tik 2022/03/31 arte	56 €	65 €
2022/04/01 tik 2022/05/16 arte	66 €	75 €



- Behin izena emateko kuota ordainduta, lasterketan parte ez hartzea erabakitzen duenari, 2022ko apirilaren 17ko 23:59ak bitarteko epean, % 100 itzuliko zaio. 2022ko apirilaren 18ko 00:00etik aurrera ez da inongo diru itzulketarik egingo arazoia edozein dela ere.
- Izen-emate ororen baliogabetzea e-posta info@ehmendierronka.eus bidez egin behar da. Izen-ematearen erreferentzia-zenbakia adierazi beharko dira.
- Lasterkari kopurua betetzen bada, itzarote-zerrenda irekiko da. Bajak dauden heinean, itzarote-zerrenda horretatik beteko dira.
- Izen-emateak honakoa bermatzen du:
 - Lasterketan parte-hartzea.
 - Erantzun zibileko aseguria.
 - Istripu-asegurua.
 - Lasterketan osasun-laguntza.
 - Anoa-postuak.
 - Txip bidezko kronometraje-sistema.
 - Korrikalariaren poltsa.
 - Dutzak. Lasterkariak, udal kiroldegian egokitutako dutxa eta atsedeen-gunea erabili ahalko dute. Bakoitzak antolakuntzak emandako eskumuturrekoa jarrita eta dutxarako beharrezko guztiak eraman beharko ditu (xaboia, toalla, ...).
 - Suspertze-zerbitzua (Fisioterapeutekin)
 - Antolakuntzak adierazitako puntura, hots Putzuzarrera, korrikalariaren materiala garraiatzeko aukera.
 - Korrikalariaren Bide Liburua.
 - Doako garraio-zerbitzua, erretiratuak Leitzara ekartzeko, antolakuntzak zehaztutako puntuetatik.
 - Proba amaierako otordua.
- Antolakuntzak bere erabilerarako 50 dortsal erreserbatuko ditu.
- Antolakuntzak eskubidea izango du parte hartzaileen datuak (izen-abizenak, jatorria, kategoria, dortsal-zenbakia, emaitzak...) zein proban zehar egindako argazkiak eta hartutako irudiak hedabideetan eta Interneten argitaratzeko; beraz, proban erregistratzeak berekin dakar berariaz eta erreserbarik gabe oniritzia ematea datu horiek antolatzaileak erabiltzeari, aurka egiteko eskubideari kalterik egin gabe. Parte-hartzaileei dagozkien datu eta zerrenda guztiak publikoki kontsultatu ahal izango dira izena ematen den une beretik.
- Erabiltzaileak izen-ematea hirugarren pertsona baten izenean egitekotan, bai plataformaren bidez, bai horren bitartez kudeatutako kirol-proben bidez, pertsona horrek ziurtatzen du interesdunaren berariazko aurretiko baimena duela lege-baldintza hauetan jasotakoaren arabera.



10. SEINALEZTAPENA:

Ibilbidea probako karteekin, banderatxoekin eta zintarekin behar bezala markatuta eta ikusteko moduan egongo da. Seinaleztatutako bidea nahitaez jarraitu behar da, moztu gabe, bidea mozteak ingurumenaren higadura eta degradazioa eragin baititzake.

11. ANOA-GUNEAK:

Helmugakoaz gain, bederatzi anoa-gune izango dira. Gune horietan produktu energetikoak eta hidratatzaileak eskainiko dira.

ANOA-GUNEAK	KM	ANOA MOTA
Pagozelai	9,6	Likidoa
Gaintza	18,2	Osoa
Unagako Putzua	24,8	Osoa
Putzuzar	32,8	Osoa
Iribasko iturburura	39,7	Likidoa
Aralar kanpina	45,5	Osoa
Iontza	54,5	Likidoa
Idiazabal	59,5	Osoa
Jaundegiko borda	64,6	Likidoa
Leitza	67	Osoa

Anoa-postu bakoitzean zenbait zakarrontzi egongo dira: ezinbestekoa izango da horiek erabiltzea eta zaborra sailkatzea.

12. KANPOKO LAGUNTZA:

Lasterketan zehar, korrikalarien edo kanpokoen laguntza eta anoa oro guztiz debekatuta dago, antolatzaileek horretarako ezarritako tokietan izan ezik (anoa guneak).

Ez da erbi lanik onartuko.

13. IGAROTZE-KONTROLAK:

Antolatzaileek hainbat igarotze-kontrol jarriko dituzte, eta horietatik pasatzea derrigorrezkoa izango da. Igarotze-kontrolak erraz ikusteko moduan adieraziak egongo dira. Horietatik pasatzen ez dena kanporatua izango da.

Antolakuntzak emandako txip batek ziurtatuko du lasterkaria bertatik igaro dela. Parte hartzaile guztiek dortsala ikusgai eraman beharko dute lasterketa osoaren zehar.

Igarotze-kontroletan antolakuntzako kideak egongo dira.



Igarotze-kontrolak honakoak izango dira:

- Gaintza.
- Irumugarrieta.
- Putzuzar
- Lekunberri (Aralar kanpina)
- Ireber
- Leitza.

14. LASTERKETA UZTEKO LEKUAK

Proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden korrikalariak Gaintza, Putzuzar eta Lekunberri (Aralar Kanpina) izango dituzte lasterketa uzteko lekuak, beraz, beren kabuz eta ahalik eta azkarren leku horietara joan beharko dute garraiatuak izan daitezten.

15. KANPORATZE-PUNTUAK ETA ORDUTEGI-MUGAK

(Helmugan sartzeko gehienezko denbora 13 ordukoa izango da):

Lekua	Ordua	Km
Gaintza	11:15	18,2
Putzuzar	15:00	32,8
Lekunberri (Aralar Kanpina)	16:30	45,5
Lekunberritik irteteko	16:50	45,5

- Antolakuntzako arduradunek kanporatze-puntuetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten kirolariak probatik kanpo utziko dituzte eta helmugara garraiatuko dituzte. Halaber, lasterkaria honako arrazoi hauengatik ere kanporatua izan daiteke:
 - Araudia ez betetzeagatik.
 - Lasterketan izena eman gabeko pertsona batek edo animalia batek lagunduta joatea (erbi lanaz baliatzea), bai ibilbidean, bai baimendutako guneeetatik kanpo.
 - Markatutako ibilbide osoa ez osatzeagatik.
 - Dortsala ikusteko moduan ez eramateagatik.
 - Antolatzaileen aholkuei kasurik ez egiteagatik.
 - Beste lasterkariei errespetu falta erakusteagatik.
 - Anoa-puntuetan zakarra ez sailkatzeagatik edo lurrean uzteagatik.
 - Ingurumena ez errespetatzea: zabor eta hondakinak ibilbidean zehar uztea edo botatzea.



- Desgaitasun bat duten korrikalarien kasuan ordutegi muga horiek malguagoak izango dira.
- Eguraldi txarragatik edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak proba gelditzeko, ibilbidea aldatzeko edo ordutegi-mugak aldatzeko eskubide osoa izango du.

Ezarritako ordutegi-mugen aldaketa gertatuz gero, ordutegi-muga berri horietara iritsi ezin daitezkeen korrikalari guztiak lasterketaz kanpo geldituko dira eta helmugara garraiatuak izango dira.

16. KRONOMETRAJEA:

- Lasterketaren kronometrajea txiparen bidez egingo da. Irabazleek, behin-behineko sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko. Zerrenda hori kronometraje gunean egongo da arratsaldeko 19:00etarako. Arratsaldeko 19:30erako behin betiko saridunen zerrenda argitaratuko da. Parte-hartzaileek sailkapenak argitaratu eta 24 ordu izango dituzte erreklamazioak egiteko, denbora tarte hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez badago, sailkapenak behin betikoak izango dira.
- Markak egiaztatzea helburu hartuta, probaren sailkapenak eperik gabe mantenduko dira, eta antolatzailearen webgunean kontsultatu ahal izango dira, ezeztatzeko eskubideari kalterik egin gabe.

17. DORTSALEN BANAKETA:

Dortsalen banaketa Leitzako plazan egingo da, 2022ko ekainaren 3an, ostirala, 17:30etatik 20:00etara, eta, probako egun berean, 6:00etatik 7:00etara, leku berean.

Dortsalaren atzealdean, larrialdi kasuetan jarraitu beharreko protokoloa eta kasu hauetarako telefono zenbakiak ikusgai egongo dira. Lasterkariak larrialdi kasuetarako edo konortea galtzen duenerako larrialdi zerbitzuetako langileentzat garrantzitsuak izan litezkeen datu esanguratsuenak idazteko ere hutsune bat egongo da (odol taldea, RH edo gaixotasun aipagarriren bat, alergia, ihesa, epilepsia, diabetesa edo gaixotasun zeliakoa kasu).

Lasterkaria identifikatutakoan, poltsa, dortsala eta txipa ematen dizkion antolakuntzako boluntarioak erabilera bakarreko identifikaziorako eskumuturrekoa jarriko dio unean bertan lasterkariari. Froga osoan zehar eskumuturrekoa eraman beharko du, hau izango baita, dortsalarekin batera, antolakuntzak lasterkarientzat egokitutako zerbitzu guztietara sarrera ziurtatuko dioena (irteera puntua, anoa-guneak, erretiratuentzako garraioa, osasun zerbitzuak, lasterkariaren poltsa jasotzea, dutxa-gunea, etab.)



18. KONTSIGNA-ZERBITZUA:

Bi kontsigna-zerbitzu eskainiko dira

1. Herriko kontsigna-zerbitzua: Antolatzaileek kontsigna-zerbitzua eskainiko diete parte-hartzaile guztiei irteera/helmuga puntuan. Kontsigna-zerbitzua (poltsa uzteko) udaletxeko lehen solairuan egonen da eta Kontsigna-zerbitzua lasterketan bukatzean (poltsa jasotzeko) Leitzako kiroldegian.
2. Ibilbideko kontsigna-zerbitzua: Putzuzarren kokatua egongo da. Hala nahi duen korrikalariak, lasterketako egunean (lasterketa hasi aurretik), Aurrera Kirol Elkartearen poltsa utzi dezake, antolakuntzak lasterketa erdira eramango dezan (Putzuzarrera). Ondoren antolakuntzak Putzuzarren utzitako poltsak Leitzako kiroldegira eramango ditu.

Poltsen edukia ez da egiaztatuko, ondorioz, ez da erreklamaziorik onartuko. Baliozko objekturik ez sartzea aholkatzen da.

Poltsak identifikatzeko dortsal zenbakia erabiliko da, hori dela eta, poltsa jasotzerakoan dortsala erakutsi beharko da.

19. INGURUMENA:

Lasterketa, ia oso-osorik, natura gune zoragarri batean zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea nahitaezkoa izango da eta debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.

- Horretarako, zaborra biltzeko ontziak jarriko dira anoa-gune amaiera guztietan. Anoa-guneetan, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea nahitaezkoa izango da.
- Antolakuntzaren kezkarik handienetako bat ingurua babestea da. Horregatik, hondakin bihur litekeen edozer objektu dortsal zenbakiarekin markatuta eramatea derrigorrezkoa da (gelak, barratxoak, etab.). Materialaren kontrol-gune aleatorioetan egiaztatuko da markatuta daudela. Edozein moduz ere, markak erretiratzeko aurkitutako hondakinak aztertuko dira, ondoren antolakuntzak neurriak hartu ahal izango dituelarik.
- Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

20. OSASUN-ZERBITZUA:

- Antolatzaileek Larrialditarako osasun-zerbitzua jarriko dute ibilbideko lekurik estrategikoenetan. Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko dituzte, horren beharrean aurkitzen den parte-hartzaileentzat.
- Antolakuntzak kirol-arriskueterako aseguru bat egin du parte-hartzaile guztientzat; beraz, izena ematen duenak oniritzia ematen dio antolatzaileei



beharrezkoak diren datuak aseguru-etxeari uzteko, proban zehar ezbeharren bat gertatuz gero, laguntza bermatuta egon dadin.

21. SEGURTASUNA:

Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiak hala eskatzen badu edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa-batzordearen adostasunarekin.

Lasterketa ixteko ardura duen erratz-taldeak partaide guztiak igaro direla egiaztatuko du.

22. LAGUNTZA EZBEHARRETAN:

Parte-hartzaileak laguntza beharrean dauden parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere.

23. ERANTZUKIZUNA:

Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Kasu hauetan, parte-hartzaileak beren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

24. IRUDI ESKUBIDEAK:

Partaide orok antolatzaileei eta beren babesleei lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete, epe mugarik gabe.

25. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA:

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze-kontrolatik kanpo. Proba bertan behera igarotze-kontrola baino lehen uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei edo antolakuntzakoei jakinarazi beharko die, haiek txipa desaktibatu eta Leitzara ekartzeko.

Korrikalariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (garraioa, dutxak, helmugako anoa-gunea...) etekina ateratzeko.

Lasterketa derrigor bertan behera uztea. Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake korrikalaria, egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.



Osasun-zerbitzura jotzen duten korrikalariak haien juzkuaren eta balorazioaren esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun-zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:

- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
- Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.
- Edozein korrikalari osasun-zentro batera eraman, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

Osasun-zentro batera eramanez gero, korrikalaria arduratuko da itzuleraz.

Istripu edo lesioagatik oinez kontrol-guneetara iristea ezinezkoa bada eta ebakuazioa beharrezkoa izanez gero, korrikalariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du, salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. Korrikalari bakoitzari, kasu horietan, zein telefono zenbakitara deitu behar duen jakinaraziko zaio (dortsalean inprimatuta egongo da).

Korrikalariaren telefono-konpainiaren estaldura ezagatik zenbaki horiek erabili ezin diren kasuan, doako larrialdietako 112 zenbakia erabiltzea proba daiteke. Beste korrikalarien errespetua eta elkartasuna erabakigarriak izango dira horrelako kasuetan.

Korrikalariaren itzulera kontrol-guneko arduradunaren eta honako arauen arabera erabakiko da:

- Anoa-gunean edo segurtasun-esparruan proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden korrikalariak goian aipatutako puntu horietara joan beharko dute beren kabuz eta ahalik eta azkarren.
- 4x4 ibilgailuen bidez bakarrik irits daitekeen postuetan, salbamendu zerbitzua behar ez den kasuetan, kontrol bakoitzeko arduradunak erabakiko du korrikalariaren itzulera-unea.
- Muturreko eguraldiaren ondorioz proba osorik edo tarte batean bertan behera utzi behar denean, antolakuntzak geldirik dauden korrikalariaren itzulera ziurtatuko du, denbora tarterik ahalik eta laburrenean.

Proba edozein arrazoi dela medio bertan behera utzi duten eta itzulera puntuetara ez joatea erabaki duten korrikalariak, igarotze-kontrolako arduradunei erabakia jakinarazi gabe, ez dira jada antolakuntzaren kontrolpean egongo.

26. IBILBIDE ALDAKETA:

Eguraldi txarrak hala behartuz gero, ordezko ibilbide bat egongo da. Horren berri korrikalariari emango zaio ahalik eta azkarren. Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman



ondoren hartuko balitz, erabaki horren berri antolakuntzak egokien ikusten duen igarotze-kontrol batean emango zaie partaideei.

Antolakuntzak lasterketaren oinarriak aldatzeko eta ustekabeko arrazoi garrantzitsuren bategatik proba bertan behera uzteko eskubidea izango du.

Lasterketak bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gehiago falta direla hartzen den kasuan, arrazoiak edozein direla ere, inskripzioan egindako ordainketaren itzulera partziala egingo da. Itzulera horren zenbatekoa antolakuntzak egindako gastu finkoei aurre egiteko behar duen diru kopuruaren arabera izango da. Lasterketa bertan behera uzteko erabakia irteera-datarako 15 egun edo gutxiago falta direla hartzen den kasuan, edo lasterketa behin irten ondoren bertan behera gelditzen denean, ez da diru itzulerarik aurreikusten.

27. ALDAKETAK:

Antolakuntzak edozein unetan araudi hau hobetu, zuzendu edo alda dezake. Izen-ematea egiteak partaidea araudi honekin ados dagoela adierazten du.

28. ARDURAK

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko antolakuntzak kontratatutako aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.

EH mendi erronka proban izena eman duten guztiek beren borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beren oinordekoek, erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

29. SAILKAPENAK

Behin-behineko sailkapenak partaideen eta jarraitzaileen eskura egongo dira lasterketak irauten duen bitartean. Antolakuntzak horretarako gune bat atonduko du, ahal den heinean korrikalariak kontrol-puntu ezberdinetan egindako denborak eta kokapena denbora errealean emateko.

Lasterketako behin-behineko emaitzak web-orrian agertuko dira lasterketa-egunaren biharamunean.

30. ERREKLAMAZIOAK

Erreklamazioak idatziz bakarrik aurkeztu ahal izango zaizkio antolakuntzari. Erreklamazioak egiteko epea 24 ordukoa izango da, behin-behineko sailkapenak lasterketaren web-orri ofizialean argitaratzen diren unetik kontatzen hasita. Erreklamazio horiek eta dagozkien erabakiak lasterketa amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean aztertu eta jakinaraziko dira.



31. KORRIKALARIAREN BIDE LIBURUA

Lasterketaren aurreko astean korrikalari bakoitzari korrikalariaren eskuliburua bidaliko zaio e-postaz. Eskuliburu horretan lasterketari buruzko informazio baliagarria aurkitu ahal izango da: igarotze-kontroletako mugak, anoa-postuak, osasun-zerbitzua, eta abar.

32. AHAZTU EDO GALDUTAKO OBJETUAK

Galdu edo ahaztutako objektuak: 2022ko EHME lasterketa bukatu ondoren, antolakuntzak, lasterketan zehar galdu edo ahaztutako objektuak hamabost egunez gordeko ditu. Jabeak epe horretan jaso beharko ditu bereak, antolakuntzak erabakitako ordutegi eta lekuan. Hamabost egun hauek igaro ondoren, antolakuntzak ez du mota honetako eskaerarik erantzungo.

33. COVID-19

2020. eta 2021. urteetan egin beharreko lasterketak bertan behera utzi behar izan genituen, Covid-19 pandemiak sortutako nahasmen eta ezohiko egoera zela eta.

2022ko EHME indarberrituta dator, eta ekimena berriz arrakastaz gauzatzeko gogoz. Nolanahi ere, eta gure oinarria lasterkarien eta boluntarioen segurtasuna direnez, adierazi nahi dugu osasun egoera berriro ere okertuko balitz antolakuntzak argitaratutako araudia aldatu lezakeela, osasun agintariak gomendatutako neurriak hartzeko. Ziurgabetasun egoera bat sortuko balitz lasterketa bertan behera uztea ere ez dugu baztertzen. Hori gertatuko balitz korrikalari guztiei dortsalaren %100 itzuliko litzaieke.